

Murrizketez beteriko hitzarmen berria? EZ, ESKERRIK ASKO!

Atzo, hilak 8an, mahai negoziatzailea izan genuen Haurreskolak Partzuergoarekin. Lan hitzarmenaren lanketarako azken aukera izango zelakoan elkartu ginen, baina administrazioaren aldetik proposamen berri bat jaso genuen ahoz:

Urteko lanaldian hezitzaileentzat 100 orduko murrizketa proposatu ziguten, 1570 ordutik 1470 ordutara. Ordu horiek eguneko jardunetatik aparte betetzen direnak izango lirateke. Kudeaketa langileentzat ordea ez dute orduetan murrizketarik aurreikusten.

Berez lanorduen murrizketa horrek ona badirudi arren, lotura zuzena du bi konturekin; alde batetik, administrazioak egindako ratioen proposamenarekin (lan hitzarmenetik at uzten dutena) eta bestetik, formazioaren moldaketarekin.

- **Ratioak:** unitate bakarreko haurreskoletan hezitzaile bakarrek 6 orduko zerbitzua emango luke 6 haurreko gela izan arte. Eta 6. haurrarekin, bi hezitzailek 8 orduko zerbitzua emango lukete.

Unitate bakarrekoak ez diren haurreskoletan gela berri bat zabaltzeko gutxienez hiru haur egon behar dira. Gela berria zabaldu arte, irekita dagoen gelan bi ume gehiago sar daitezke, baina hezitzaile kopurua handitu gabe. Beraz, 0 urteko gelan bi hezitzailearekin 8 + 2 haur egon daitezke eta urte bateko gelan 13 + 2.

Haurreskola hauetan ere lehenik aipatutako irizpideak aplikatuko dira, hau da, 6 haur egon arte hezitzaile bakarra egongo da.

- **Formazioaren moldaketa:** formazioa eta eguneko prestakuntza egunean ordubetez batuko dira. (informazio gehiagoren zain gaude).

Administrazioak aste honetan egindako proposamena idatziz jasotzeko konpromisoa hartu du. Dena den, oraindik proposamenaren xehetasunak ezagutu ez arren, **STEILAS** sindikatuan argi dugu ratio horiek onartezinak direla, plantillaren murrizketa ekarriko dutelako eta lan hitzarmenean jasota dauden beste eskubideekin bateraezinek direlako (koordinazioa, prestakuntza, bazkaltzeko eskubidea, baimenak...).

Aipatutakoaz gain, erosteko ahalmenean, desplazamenduak ekiditeko neurrietan, Hezkuntza Saileko kudeaketa zuzenean, urteko lan egunetan, eskola publikoaren egutegia eta ordutegiarekin parekatzean... ez dago aurrerapausorik. Horregatik **STEILAS** sindikatuak argi eta garbi esan du mahai gainean ez dagoela nahikoa edukirik une honetan aurkeztu diguten lan hitzarmen berri hori sinatzeko.

Gainera, **ordezkapen telematikoaren (Ordezlagunea)** inguruan administrazioaren aldetik jasotako proposamenari berriro ere gure ekarpenak egin genizkion ezinbestean uztartu beharreko bi bide paralelo daudela berretsiz: aplikatiboaren araudia eta ordezkoen araudia, bata bestea baldintzatzen baitu. Ordezkoen araudiaren proposamena jasoko dugu datorren astean ekarpenak egin ahal izateko eta informatikariekin aplikatiboa sortzen hasiko dira.

Horretaz gain, sinatutako azken akordioen inguruko gure ezinegona adierazi genion zuzendaritza batzordeari, hiru aste baino ez dira pasa eta jada hauek urratzen ari da:

- **Ekoizpen gora-beherengatiko kontratuak (lan metaketak):**

- Maiatzean hasitako kontratu mota horien amaiera data ez da haurreskolako azken laneguna izan, ekainak 30a baizik. Hori ez dator bat sinatutakoarekin.
- Enpresak lan aktiboan ez dauden eta lan metaketa izaerako kontratua duten hezitzaileei kontratua ez luzatzea erabaki du (bajan, eszedentzian... daudenei), luzapen hori haien ordezkoen egokitzuz. **STEILAS**eko zerbitzu juridikoek erabakia zuzena ez dela diote.

Gauzak aldatu ezean, **STEILAS** sindikatuak bide juridikoa jorratuko duela azaldu dio enpresari.

Lan hitzarmen berri hau ez dago sinatzeko moduan, beraz STEILAS sindikatuan lanean jarraituko dugu lan hitzarmen duin bat lortu arte!

